eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# Gorputz Hezkuntzaren metodologiaren garapena: irakaskuntza estiloetatik eredu pedagogikoetara.

## Bilketa bibliografikoa

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Pérez Rubio, Janire.

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, María Teresa.

**2015/2016**

**LABURPENA**

Lan honetan gorputz hezkuntzan erabili izan diren metodologien analisia egingo da, izan ere, egindako bilketa bibliografikoari esker ohartu gara kontzeptuak jasan dituen aldaketak direla eta, irakaskuntza estiloak 1990. hamarkadan ezagunak ziren bezala, egun, eredu pedagogikoaren terminoa ezagunagoa dela. Hau da, irakaskuntza estiloen inguruko informazioa zahartuta dago jada, egun, eredu pedagogikoen terminoa ezagunagoa bilakatuz. Hori dela eta gai horren inguruan zegoen bilketa bibliografiko bat egin da. Honen ondorioz, hasieran hautatuko gaia, "gorputz hezkuntzaren irakaskuntza estiloak", aldatzea erabaki nuen, lanari ikuspegi berritzaile bat emateko intentzioarekin. Lanaren lehenengo zatian metodologietan eman den garapena aztertuko da, hala Mosston eta Ashworthen (1993) eta Delgadoren (1991) irakaskuntza estiloen sailkapenen artean, De Lucasek (2003) proposatzen duen sailkapenean oinarrituz sailkapen pertsonala agertzen da, bertan irakaskuntza estilo nagusienak azalduta agertzen direlarik. Ondoren, denboraren poderioz, ikuspegia nola aldatu den ikusiko dugu, non irakaskuntza estiloaren kontzeptutik eredu pedagogikoen kontzeptura pasa den. Kontzeptu berri honen azalpena eta deskribapena egingo da, gorputz hezkuntzak, egun, biltzen dituen eredu pedagogiko desberdinak aipatuz eta deskribatuz. Hauen artean, gaur egungo gizartean aurkitzen ditugun ikasle lehiakorrei eta indibidualistei zenbait balore transmititzeko asmoz, ikaskuntza kooperatiboan gehiago sakonduko dugu, jolas kooperatiboen bidez metodologia hau burutzeko tresna eraginkorrena bilakatuz. Bukatzeko, bigarren zatiari dagokionez, etorkizunari begira erabilgarria izango den informazioa jasotzeko asmoz, bilketa bibliografiko bat egingo da, horretarako lehenengo zatian aipatu diren bi gai nagusietatik abiatuko gara: irakaskuntza estiloak eta eredu pedagogikoak.

**Hitz gakoak:** gorputz hezkuntza, irakaskuntza estiloak, eredu pedagogikoak, ikaskuntza kooperatiboa.

# AURKIBIDEA

**1. SARRERA** **1**

**2. JUSTIFIKAZIOA** **3**

**3. MARKO TEORIKOA** **5**

***3.1 GORPUTZ HEZKUNTZAREN KONTZEPTUA*** ***5***

***3.2 PARTE- HARTZE DIDAKTIKOA*** ***8***

**3.2.1 Zer irakatsi GHn: edukiak** **10**

**3.2.2 Zertarako irakatsi: helburuak** **12**

**3.2.3 Nola ebaluatu** **13**

**3.2.4 Nola irakatsi: irakaskuntza metodoa** **15**

***3.3 IRAKASKUNTZA METODOA*** **16**

**3.3.1 Irakaskuntza teknika (IT)** **16**

**3.3.2 Irakaskuntza estiloa (IE)** **19**

3.3.2.1 Mosston eta Asworth (1993) jarraituz 19

3.3.2.2 Delgado (1991) jarraituz 25

**3.3.3. Metodologia berrien bila: Irakaskuntza estiloetatik eredu pedagogikoetara** **26**

**3.3.4 Ikuspegi berritzailea: eredu pedagogikoak** **26**

3.3.4.1 Siedeptonen kirol hezkuntza (ED) 28

3.3.4.2 Ikaskuntza kooperatiboa (AC) 30

3.3.4.3 Hellison-en ardura pertsonalarentzako eta sozialentzako ikaskuntza (ERPS) 34

3.3.4.4 Proiektuen bidezko irakaskuntza (PBL) 35

3.3.4.5 Ikaskuntza inguruneak (AA) 35

3.3.4.6 Osasunarekin erlazionatutako heziketa fisikoa (EFRS) 36

**4. LANAREN HELBURUAK 38**

**5. METODOA 39**

**6. BILKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK 47**

**7. ONDORIOAK 62**

**8. LANAREN INGURUKO GOGOETAK 63**

**9. BIBLIOGRAFIA 65**

**10. ERANSKINAK 71**

# 1. SARRERA

Lan honi hasiera emateko gorputz hezkuntzaren metodologiak, denboraren poderioz, izan dituen aldaketak eta ikuspegi desberdinak azalaraztea gustatuko litzaidake, kontzeptualki bi faseetan desberdinduz: *irakaskuntza estiloetatik eredu pedagogikoetara.*

Irakaskuntza estiloen sailkapena gorputz hezkuntzaren didaktikaren inguruan eman ziren lehenengo urratsen emaitza da, lehenengo sailkapena Mosstonek 1976. urtean egin zuen. Estilo ezberdinak banatzeko asmoz, eskala bat finkatu zuen, "estiloen espektroa" deritzona, "planteamendu honen helburua irakaskuntzaren egitura teoria bateratu bat izatea da" (Mosston eta Ashworth, 1986, 13). Eskalaren hasierako estiloak zuzenduagoak ziren, gradualki autonomia maila handituz. Bere helburua ikasleari espektroaren azkeneko estilorantz, hau dau, autonomia gehiena zuen estilorantz, bideratzea zen.

Irakasleen metodologiak eta irakats- estiloak 2000. urte arte garrantzi handia izan zuten, gorputz hezkuntzaren arloan Mosstonen espektroa irakasteko modurik ezagunena eta erabiliena bilakatuz. Izan ere, gai honen inguruan publikatutako azkeneko datak nahiko zaharrak geldituu dira, honen ondorioz gorputz hezkuntzaren didaktikak hainbat aldaketa jasan ditu, gaur egun ezagutzen dugun eredu pedagogikoen kontzeptura iritsi arte.

Eredu pedagogikoak ikuspegi berritzaileagoa du, non ikaslea irakaslearen esku-hartzearen ardatz nagusia den. Eredu honek nire ikuspegia zabaltzeko aukera eskaini dit irakaskuntza- ikaskuntza prozesuan benetan garrantzitsuak diren alderdiaz ohartuz, hala nola, ikasleen emozioak, trebetasun sozialak, bizikidetza, kooperazioa… Eredu pedagogikoekin eta zehazki irakaskuntza kooperatiboarekin gorputz hezkuntza hobetu dezakegu. Kasu honetan nire proposamena jolas kooperatiboena da, hauek ikasleei beste modu batean erlazionatzen erakusten die. Halaber, nire ustez, gorputz hezkuntzak alderdi fisikoa baino haratagoa doan praktika bat izan behar du, non ikasleei arduratsuak, autonomoak eta besteekin kooperatzen ikasten duten. Ondorioz, nire helburu nagusia indibidualismotik kooperaziora, eta hala gorputz

hezkuntzaren didaktikak irakaskuntza estiloetatik eredu pedagogikoetara nola aldatu den ikustea izango da.

Bestalde, lan honetan aditu askoren irakaskuntza estiloen inguruko ekarpenak ikusiko ditugu, modu batean edo bestean sailkatuz, definizio desberdinak emanez… baina irakasle on batek estilo guztiak ulertu, beste batzuk sortu edo daudenak nahastu beharko ditu, bere izaera kontuan izanik eraginkorrena bilatzeko. Irakaslearen lana autore ezberdinak diotena kontsultatzea eta praktikara eramatea izango da. Horregatik, aproposa iruditu zait informazio guzti hori lan batean biltzea, oinarria Muska Mosston eta Sara Asworth (1993), Miguel Angel Delgado (1991) eta Carlos Velázquez (2010) izanda. Honen oinarria Velazquezen (2010: 45) hitz hauetan dago: “Azkeneko urte hauetan balorezko hezkuntzaz hitz egiten hasi gara eta jolas kooperatiboaren bidez sustatzen dela sinesten da, honek irakasleei liburuetan, Interneten… kontsultatzea eta beraien gustuen arabera hautatzea eragin du”.

# 2. JUSTIFIKAZIOA

*“El deporte no posee ninguna virtud mágica, puede despertar el sentido de solidaridad y cooperación como engendrar un espíritu individualista, puede educar el respeto a la norma como fomentar el sentido de trampa. Depende del educador y de la forma de enseñar, que se fomenten o no los valores educativos que indiscutiblemente posee el deporte”*

Martin eta Peno (2012: 104)

Lan honen justifikazioa irakasleak erabiltzen duen metodologian oinarrituta dago. Irakasleak irakaskuntza estilo desberdinak ezagutu eta kontrolatu behar ditu, eta bide horretan lortu nahi diren helburuen arabera bata edo bestea erabiltzea aproposagoa izango delako.

Etorkizuneko irakasle bezala, eta are gehiago gorputz hezkuntzako irakaslea izango naizen horretan, zalantzak agertzen dira edukiak erakusterako orduan, eduki hauek gelan erakusten direnarekin zer ikusirik ez dutelako. Gorputz hezkuntzako edukiak mugimenduarekin eta gorputzarekin harreman estua dute, irakasle berria izanda saio bat bideratzerako orduan zailagoa egiten duena. Horregatik gorputz hezkuntzaren didaktikak zer esaten duen jakitea funtsezkoa da, hala nola, zein izan behar den gure parte- hartze metodologikoa. Irakasleak hezkuntza curriculumeko edukietan, helburuetan eta ebaluazio irizpideetan oinarritu beharko da, izan ere, elementu hauetaz gain, irakasleak irakaskuntza metodoak (honen barruan irakaskuntza estiloak aurkituko ditugularik) eta gaur egun egiten ari diren berrikuntzak zeintzuk diren (kasu honetan irakaskuntza kooperatiboaren inguruan egiten ari diren aurrerapausoak adibidez) ezagutu beharko ditu.

Honetaz gain, aipagarria da gorputz hezkuntzak ikaslearen garapenean duen garrantzia, bai alderdi fisikoan, sozialean, afektiboan eta kognitiboan. Fernandezek (2009) ikasleak nolakoak diren ezagutzea ahalbidetzen digula esaten du, zeintzuk diren haien mugak eta gaitasunak ezagutuz eta beraien burua eta besteena errespetatuz. Gorputz hezkuntzaren bidez mugitzeko forma berriak ikertzen, asmatzen eta ezagutzen dituzte, honek beraien sormena eta

bat-batekotasuna azalaraztea eragingo du, halaber hainbat ohitura osasuntsuak ikasten dituzte, norberaren ongizatean ondorioak izango dituztenak. Bestalde, ez zaigu ahaztu behar burmuina eta gorputza unitate bakar bat direla, hau da, ikasleen burmuinak ere landu eta garatu behar ditugu mugimen arazoak planteatuz eta estrategia ezberdinak bilatzea eragiten duten jolasak proposatuz.

# 3. MARKO TEORIKOA

## 3.1 GORPUTZ HEZKUNTZAREN KONTZEPTUA

Gorputz Hezkuntzaren didaktikaz hitz egin baino lehenago, argitu beharreko kontzeptu garrantzitsu bat Gorputz Hezkuntzarena da. Sáenz Lópezek, Castillok eta Condek (2009) adierazten duten moduan, hainbat eztabaidak sortu dituen termino baten aurrean gaude, non arlo honetan adituak diren zenbait autore, egun, terminologikoki ez dira adostasun batera iritsi. Honen ondorioz, “jarduera fisikoa”, “gimnasia”, “ariketa fisikoa”, “mugimen hezkuntza”, “heziketa fisikoa” edota “kirola” kontzeptuak bereizi gabetasunik erabiltzen dira, bata bestearekin zer ikusirik ez dutenean. Arazo honi konponbide bat emateko asmoz, Gorputz Hezkuntzaren kontzeptuaren argitzapena egingo da.

Desadostasun honen aurrean, Gonzalezek (1993:48) badu zer esanik: “Gorputz Hezkuntzak esanahi polisemikoa du, non hainbat adierazpen onartzen dituen ematen zaion funtzioaren edota testuinguruaren arabera”.




**1. Grafikoa: Gorputz hezkuntzaren terminoaren polisemia zehazten duten aldagaiak (Fernandez, Cecchini eta Zagalaz, 2002: 17)**

Aurreko irudian ikusi dezakegun moduan historian zehar gorputzaren kontzeptua zenbait aldagaien araberakoa izan da. Etapa bakoitzean indarrean zegoen kulturak eta gizarteak eragina zuzena izan du (Contreras, 1998). Egoera honen aurrean gure helburua historian zehar kontzeptua nola aldatu den ikustea izango da, ondoren gaur egungo gorputz hezkuntzaren ikuspegia zein den ikusteko. Horretarako Garrotek (1993) Gorputz Hezkuntza identifikatu ahal izateko, bi errealitate antropologiko nagusitik abiatu behar garela esaten du: *gorputza eta mugimendua.*

Aspalditik gorputzak arimarekin lotzen zen, arimaren “kartzela” bezala ulertuz. Honek Gorputz Hezkuntzari izaera instrumentala ematen zion, non gorputza lorpen handiagoak lortzeko instrumentu gisa kontsideratzen zen. Honen ondorioa Gorputz Hezkuntzak entrenamendu militarrarekin erlazionatzea izan zen, gorputza borrokarako edota garapen fisikorako bakarrik prestatzea, diziplina, hierarkia, ordena, gizontasuna etb… balioak lantzeko aukera eskainiz (Saenz López, 1997; Contreras Jordan, 1998).

Saenz López (1997) baieztatzen duen moduan, gure ikasgaiak giza gorputzaren kontzeptuan oinarrituta egon behar du; jarduera fisikoak gizakiaren dimentsio biologikoa eta funtzionalaz aparte, beste hainbat gaitasunak bereganatzeko baliogarria dela kontsideratuz. Zentzu honetan, giza-mugimenduak ezagutza eta komunikazio, sentimendu eta emozio, plazer, osasuna edota aisialdi gisa ulertu behar dugu.

Mugimenduari dagokionez, Saenz Lopezek (1997) Gorputz Hezkuntzaren ezagutza objektua aintzat hartzen du. Autore honen hitzak jarraituz, pertsona bakarra eta zatiezina bada, mugimenduak motrizitatearen eta psikismoaren emaitza izan behar du, hau da, mugimenduak borondatezko ezaugarriaz eta intentzio ezaugarriaz osatuta egon behar dira.

Gaur egun, berriz, Contreras Jordanek (1998) pertsona zatika osatuta dagoelaren ideian oinarritzen da, zatitutako hezkuntza bati lekua eskainiz, honela hezkuntza intelektualaren, fisikoaren, moralaren, politikoaren, etb… kontzeptuak entzun ditzakegu.

Horregatik, egun, ezin dugu bakarrik hitz egin hezkuntza fisikoaz Gorputz Hezkuntzari erreferentzia egiteko. Gonzalezek (1993) Gorputz Hezkuntza terminoa bi lexematan banatzen du: alde batetik, gorputza, adjektibo bat bezala identifikatuz eta gaztelaniaz "física"ri erreferentzia eginez eta bestetik, hezkuntza, substantibo moduan. Banaketa hau Contreras (1998: 25) ere errespetatzen du: "Gorputz Hezkuntza, batez ere, hezkuntza da, bere berezitasuna mugimenduaren bidez lan egitea da. Modu honetan mugimendua ez da mugimendu mekaniko soil bezala ulertu behar, baizik eta pertzepzioen eta sentimenduen adierazpen bezala". Ildo honetatik, aipagarriak dira Arruzak eta Cecchinik (2002: 9) aipatzen dituzten hitzak: "Hezkuntzaren helburua gizakia da, baita gure arloan ere […] Gorputz hezkuntzaren kontzeptuak ikasleen gaitasun eta ahalmen psikomotore, fisikomotore eta soziomotoreak garatzeko gorputz- praktiken multzoa ere beregan izan behar luke".

## 3.2 PARTE- HARTZE DIDAKTIKOA

*"Dime algo y lo olvidaré, enséñame algo y lo recordaré, pero hazme partícipe de algo y lo aprenderé"*

Esaera txinatarra

Ikasgaiaren antolamenduaren nondik norakoak ezagutzeko, gure parte- hartze didaktikoa zein izango den argi eduki beharko dugu. Delgadok (1991: 6) parte hartze didaktikoa honela definitzen du: "irakasleak irakatsi eta hezitzeko egiten dituen jarduketa guztiak barne hartzen dituen termino orokorra da". Beste ikasgaien antzera, Gorputz Hezkuntzak bere parte- hartze didaktiko propioa izan behar du. Saenz Lopezek (1997) baieztatzen duen moduan, Gorputz Hezkuntza eta Kirolaren didaktikak, irakaskuntza- ekintza baten garapenean oinarrituta egon behar da, non gorputza, mugimendua eta esfortzu fisikoak edukiaren zati nagusiak izango diren.

Gorputz Hezkuntzaren eta Kirolaren Didaktikako edukiak eta programazioak "gelako" ikasgaiekin zer ikusirik ez dute, gorputzaren mugimenduan eta esfortzu fisikoan oinarrituta egon behar diren edukiak aurkeztu behar baitu. Hori dela eta Gorputz Hezkuntzak eta Kirolak didaktika espezifiko baten beharra du, (Sanchez Bañuelos, 1986). "Gorputz hezkuntzak zerbait propioa du, beste ikasgaiez desberdintzen diona, berari bakarrik dagokion zerbait eta identifikatzen diona, hori mugimen jarrera da" (Larraz, 2015: 5). De Lucasek (2003) Gorputz Hezkuntzaren hainbat berezitasun zehaztu ditu, "gelako" ikasgaiez desberdintzen diona, hala nola, erabiltzen den materiala, espazioa, arropa eta oinetako zehatzak, ekintzen izaera ludikoa, irakasle- ikasleen artean sortzen diren interakzioak, faktore metodologikoak, komunikazio ez- berbalaren garrantzia edota jokaera batean faktore kognitibo, afektibo, sozialen eta fisikoen arteko integrazioa.

Gonzalezek (2003: 70) Lehen Hezkuntzarako hainbat hastapen didaktiko interesgarriak eskaintzen dizkigu, irakaskuntza- ikaskuntzaren prozesuan irakaslearen jokaera gidatzeko lagunduko digun orientabideak zehazki:

- Ekintza motorearen hastapena

- Orientazioko hastapena
- Erabilgarritasunaren hastapena
- Progresioaren hastapena
- Eraginkortasunaren hastapena
- Osotasunaren hastapena
- Parte- hartzearen hastapena
- Egokitzapenaren hastapena
- Jarraitasun, dosifikazio eta espezifikotasunaren hastapena
- Esfortzuaren hastapena
- Sormenaren hastapena
- Ebaluazioaren hastapena

Gure parte- hartze didaktikoa zein izan behar den hobeto ezagutzeko, aurretik aipatu dugun orientabide metodologikoaz gain, Diseinu Curriculumean oinarrituko gara. Diseinu Curricularra eredu ireki bat da non irakasleei helburu orokorrei, eduki blokeei, printzipio metodologikoei eta ebaluazio irizpideei buruzko orientabideak eskaintzen digun. Curriculumeko elementuak dinamikoak dira, hezkuntza prozesu bat hasten den bakoitzean, elementu hauek birplanteatuak izan daitezkeelako. Curriculumean elementu hauek zehazten dira, funtsezko galderei erantzuna emateko asmoz: zer, noiz eta nola irakatsi eta zer, noiz eta nola ebaluatu.  (Sanchez Bañuelos, 2002)




2. Grafikoa: Curriculumeko elementuak. Saenz-Lopez (1997: 53)

### 3.2.1 Zer irakatsi GH: Edukiak

Zein edukiak landu behar diren jakiteko Euskal Autonomi Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzari buruzko 2/2007 Lege Organikoan (EHAA-2007ko azaroak, 13) zentratuko gara, nahiz eta 2015. urtetik Heziberria legea garatzen ari den, oraindik Euskal Autonomi Erkidegoan ez dago erabat ezarrita, legeak kurtso honetan finkatzen aritu baita, izan ere, hemendik gutxira gorputz hezkuntzako curriculumaz hitz egiterakoan Heziberriaren legeari egin beharko diogu kasu.

Makazaga eta Vizcarrak (2007), LOEri (2007) jarraituz, curriculumeko edukiak prozeduretan, kontzeptuetan eta jarreratan sailkatzen dituzte, hiru ezaugarri hauek modu integratuan aurkeztu nahi dira, Etxebesteren (2007) arabera, lokarri komun bat jarraituz: gorputza eta mugimendua. LOEn (2007), Lehen Hezkuntzarako eduki hauek zehazten dira:

1. Eduki multzoa. Norberaren gorputzaren ezagutza eta kontrola: oinarrizko mugimen gaitasunak eta mugimen- trebetasunak garatzeko aukera ematen duten edukiak biltzen dira.
2. Eduki multzoa. Gorputz adierazpena eta komunikazioa. Gorputz hizkuntzaren bidez adieraztea eta komunikatzea bilatuko da.
3. Eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna. Egunerokotasunean jarduera fisikoa egiteko ohitura eta bizi kalitatea hobetzeko edukiak lantzen dira.
4. Eduki multzoa. Mugimen kultura eta aisialdia. Denbora librerako hezkuntza eta jolasak eta kirol- jarduerak aztertuko dira. Harremanetan oinarritzen diren hainbat balioak landuz: errespetua, lankidetza, elkartasuna…

Eduki hauek praktikara eramateko tresnarik eraginkorrena jolasen eta jokoen bitartez da. Etxebestek (2007: 42) dioen moduan jolasa eta jokoa "euskal gorputz heziketako curriculumaren irizpideak dira". Bestalde, Makazagak eta Vizcarrak (2007) ikasle bakoitzaren testuinguru kulturala kontuan hartzea funtsezkotzat jotzen dute, baita bakoitzaren sentipen eta emozioak ere.

"Zer irakatsi? galderari erantzuna ematen dion curriculumeko beste elementu berri bat oinarrizko konpetentziarena da" (Saenz Lopez, 2009: 34). Gómez Rijok et al. (2008: 97) konpetentziak "ikasleria oinarrizko hezkuntza bukatzerakoan lortu behar dituen ezagutzen, trebetasunen eta jarreren multzoa" bezala definitzen dute, gizartean hiritar arduratsu moduan txertatu ahal izateko. Oinarrizko konpetentziak zortzi dira:

- Mundu fisikoaren interakzioa eta ezagutzaren konpetentzia.
- Konpetentzia soziala eta herritarra.
- Konpetentzia kulturala eta artistikoa.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Ikasten ikasteko konpetentzia.
- Komunikazio linguistikoaren konpetentzia.
- Informazioaren trataera eta konpetentzia digitala.
- Konpetentzia matematikoa.

Hala ere, Gorputz Hezkuntza alorrak, Ortiz eta Torresen (2009) arabera, lehenengo bosten konpetentzien garapena bilatzen du (mundu fisikoaren interakzioa eta ezagutza, konpetentzia soziala eta herritarra, kulturala eta artistikoa, autonomia eta ekimen pertsonala eta ikasten ikastekoa). Maila txikiago batean informazioaren eta konpetentzia digitala eta komunikazio linguistikoaren konpetentzia lantzen da. Konpetentzia matematikoa, berriz, lantzen ez den konpetentzia bakarra dela esaten dute. Hala ere, Euskal curriculumak ez dago ados horrekin, hauek, berriz, hurrengoa diote: "Gorputz-hezkuntzak matematikarako gaitasuna lortzen laguntzen du, bere jarduerak matematika-kontzeptuen osagarri garrantzitsuak baitira; hau da, norberaren ikuspuntutik nahiz besteen ikuspuntutik espazio- eta denbora kontzeptuak lantzen eta eskemak nahiz planoak irudikatzeko hainbat modu interpretatzen laguntzen du" (LOE, 2007: 165). Gomez Rijok et al. (2008) ustez dimentsio espazialak, denborazkotasuna, kadentziak eta erritmoa menperatzerakoan konpetentzia matematikoa eskuratuko da.

### 3.2.2 Zertarako irakatsi: helburuak

Etapa bakoitzarentzat zehaztuta dauden intentzioak, gaitasunak eta asmoen multzoak dira, hauek ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan kontuan hartu beharrekoak. Helburu hauek alderdi fisikoa, kognitiboa, afektiboa eta sozialaren garapena bilatu beharko dute (Gomez Rijo et al., 2008). Saenz Lopezek, Castillok eta Condek (2009) oreka pertsonala eta harreman intrapertsonalen alderdiak eransten ditu. Euskal Curriculumak zortzi helburu hauek zehazten ditu (LOE, 2007: 168):

1. Norberaren gorputzaren hautemate- eta mugimen-aukerak aztertzea eta gauzatzea, nork bere buruan arreta jartzeko eta konfiantza hartzeko

2. Sarri, aldizka eta neurrian egiten den jarduera fisikoaren balorazio positiboa egitea, nork bere buruarekiko eta beste pertsonekiko jarrera arduratsua adierazteko; horrez gainera, jarduera fisikoak, higieneak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean zer-nolako ondorioak dituzten jakitea.

3. Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, oinarrizko mugimen trebetasunak haurren bilakaera-prozesuari jarraiki gara daitezen; horretarako, ekintza-jokoak egingo dira.

4. Arazo motorrak konpontzeko eta, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta jarduera artistikoak eta espresiokoak egitean, eraginkortasunez eta autonomiaz jarduteko printzipioak eta arauak eskuratzea, aukeratzea eta aplikatzea; horrez gainera, egindako ahalegina erregulatu, neurtu eta baloratu egingo da, eta norberaren aukeren eta zeregin-jatorriaren araberako autoeskaera-mailara iritsiko da.

5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-baliabideak estetikoki eta sormenez erabiliz, gauzak aurkitzea eta adieraztea; horrela, norberaren mugimenduen bidez, horiek sentitu, bizi, onartu eta pertsonalizatu egingo dira.

6. Jarduera fisikoetan parte hartzea, jokabide-estrategiak eskuratzeko; estrategia horien bidez, gainerakoekin harreman orekatuak eta eraikitzaileak egin ahal izango dira eta, horrez gainera, aisialdi-denbora topaketarako gune bihurtuko da.

7. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoek eta fisiko nahiz kirolekoek duten gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta balioesteko; horretarako, herri-jolasak eta -adierazpenak eta jolas eta adierazpen tradizionalak egingo dira.

8. Jarduera fisikoen aniztasuna, jolas motak, tradizio ludikoak, kirol jarduerak eta dantzak ezagutzea eta gizarteko eta kulturako hainbat irizpide kontuan hartuta balioestea, euskal kulturaren balioak aintzat hartzeko.

### 3.2.3 Nola ebaluatu

Gorputz hezkuntzako ebaluazioa modu egokian egitea ez da batere lan erraza, askotan ez dakigu zehazki zer da ebaluatu behar duguna, ezta nola egin behar dugun ere. Horregatik, komenigarria iruditzen zait zenbait erreferentzia puntuak ematea.

Garrantzitsua da ikasleen adina kontuan hartzea, logikoa denez adinaren arabera egin dezaketen mugimenduen gaitasuna mugatua egoten delako, hau da, baloiaren jaurtiketak lehen zikloko ikasle batek hirugarren zikloko batekin alderatuta ez dira berdinak izango, adina dela eta azkenekoaren exekuzio maila zuzenagoa izango da.

Irizpide hau oinarri bezala bereganatzen duen erreferentzia puntu bat Euskal Autonomi Erkidegoko Hezkuntza Curriculuma (LOE, 2007) da. Bertan adinaren arabera sailkatuta dauden ebaluazio irizpideak aurkituko ditugu, eduki- multzo bakoitzaren ondoren. Hauek harreman estua dute lortu nahi ditugun helburuekin, izan ere, zehaztutako helburuen arabera ebaluazio irizpide bat edo beste aukeratuko dugulako.

Zer da ebaluatu nahi duguna jakin eta gero eramango dugun ebaluazio-prozesua ezagutzea izango da hurrengo pausua. Contreras (2002: 294) ebaluazio- prozesua hiru sekuentziatan banatzen du:

1. *Informazioaren bilketa:* ikaslea ezagutu, bere gaitasun maila identifikatu…
2. *Usteen formulazioa:* saioan zer gertatuko dena aurreikustea eta horren arabera galderak sortzea.
3. *Erabakiak hartzea:* zer ebaluazio tresnak erabiliko diren, nola, noiz…

Hala ere, ebaluazioa bere osotasunean lortu nahi badugu, ikasleaz gain, beste hainbat alderdi ere ebaluatu beharko genituzke. Fernández, Cecchini eta Zagalazek (2002) ikaskuntza- irakaskuntza prozesua ebaluatzeko zenbait alderdi proposatzen digu, hala nola, ikasleen ikaskuntzaren emaitzak, ikaskuntza- irakaskuntzaren prozesua eta irakaslearen lanaren ebaluazioa. Bestetik, ebaluazio tresnak erabiltzea lagungarria izan litzake. Posadak (2000) tresna hauek alderdi kuantitatiboetan eta kualitatiboetan sailkatzen ditu: kuantitatiboak test baten jarraipenaren bidez puntuazio altuena jasotzea izango da helburua, bukaeran emaitza hoberena lortzeko (Test de Cooper, salto bertikala…) eta kualitatiboak behaketaren bidez burutzen direnak dira (behaketa eskala, jokaeren erregistroa…). Hala ere, hauek umeekin ez nituzke

erabiliko, uste dut ez direla beraien mugimen- garapenerako erabilgarriak, izan ere, teoriak hori dio.




**3. Grafikoa: Gorputz hezkuntzako ebaluazioaren alderdi nagusiak. (Posada, 2000)**

### 3.2.4 Nola irakatsi: irakaskuntza metodoa

Gure ikasleei transmititu nahi ditugun helburuak lortzen laguntzen digun erak, moduak edo bideak adierazteko, gehienetan, metodo hitza erabiltzen dugu, (Delgado, 1991) termino egokiena ez izan arren. Metodo hitza esanahi polisemikoa duela esan dezakegu, askotan zehaztasunik gabe gauza bera adierazteko erabiltzen dugulako. Etorkizuneko irakasle gisa, zehaztasun terminologiko batera iristera izango litzateke erabaki egokiena.




**4. Grafikoa: Irakaskuntza metodoaren polisemia (Delgado, 1991: 11)**

4. grafikoan ikusi dezakegun moduan didaktikarekin erlazioa duten beste hainbat termino erabiltzen dira metodo hitzari erreferentzia egiteko. Kontutan hartzen badugu irakaskuntza estiloetan eta eredu pedagogikoetan oinarritu nahi dugula lana, irakaskuntza metodoari izaera propio bat ematea komenigarria iruditzen zait. Ondorioz, zenbait autoreek (Navarrete Gonzalez, 2010; Hernández Nieto, 2009; Bellido Muñoz, 2010) egiten duten moduan eta guri interesatzen zaizkigun kontzeptuak kontuan hartuz, metodoen bi esanahietan zentratuko gara: *irakaskuntza teknika* eta *irakaskuntza estiloa.*

## 3.3 IRAKASKUNTZA METODOA

### 3.3.1 Irakaskuntza teknika (IT)

Irakaskuntza teknika gure irakaskuntz edukiak aurkezteko eta komunikatzeko modu eraginkorrena da (Delgado, 1991). Lotura honen oinarrian autore batzuk (Delgado, 1991; de Lucas, 2003; Mosston, 1978; Mosston eta Ashworth, 1993; Sanchez Bañuelos, 1985, 2002; Saenz Lopez, 1997) bi irakaskuntza teknikak garatzen direla esaten digute: *aginte zuzenaren* bidezko irakaskuntza,

erreprodukzio zuzenean oinarritua eta *ikerkuntzaren* bidezko irakaskuntza, sorkuntzan edo bilaketan oinarritua.

Ezinbestekoa da lortu nahi diren helburuen arabera zein den irakaskuntza teknikarik egokiena identifikatzea. “Gorputz Hezkuntzako irakaskuntzan, IT-ren aplikazio zuzena garrantzi erabakigarria du, bai ikaslea aurkeztutako eredua teknikoki gauzatze zuzena ikasteko, eta bai, eredu zehatz bat jarraitu gabe, egin beharreko ekintzak aurrera ateratzeko” (Delgado, 1991: 18).

Aurreko guztia biltzeko asmoz, Delgadok (1991: 19), aurkeztutako bi tekniken funtsezko elementuak zehazten ditu:

i. Hasierako informazioa
ii. Emaitzen ezagupena (feedback-a)




4. **Grafikoa: Irakaskuntza teknikaren prozesua (De Lucas, 2003: 106)**

### 3.3.1.1.Aginte zuzena

*Aginte zuzenari* buruzko hainbat definizio aurkitu ditzakegu, izan ere, nahiz eta desberdin formulatuta egon, denak ondorio berdinera iristen dira: irakasleak ikasleei eskaintzen dion informazio zuzena eta zehatza da, ondoren, imitazioaren bidez ikasleak aurkeztutako ekintza motorra zehaztasun handienarekin ikasi dezaten. (De Lucas, 2003, Saenz Lopez, 1997 eta Sanchez Bañuelos, 1986)

Teknika honen bidez erabaki guztiak irakasleak hartzen ditu, ikaslearen papera pasiboagoa da. Nahiz eta irakasle askok teknika hau komenigarriena ez iruditu, dantzak, kirolak edota mugimendu zehatzak irakasteko erabilgarria izan daiteke (De Lucas, 2003).

#### 3.3.1.2 Ikerkuntza edo bilaketaren bidezko irakaskuntza

Teknika hau, ez da agintean oinarritzen, hau da, irakasleak ez du eredurik erakutsiko, ikaslea izango da arazo motorrari konponbidea bilatuko diona. (Saenz Lopez, 1997). Bañuelosek (1986), berriz, "bilaketan oinarritutako irakaskuntza" bezala izendatzea aproposagoa iruditzen baitzaio.

Teknika honen barruan arazoen ebazpena eta aurkikuntza gidatua bezalako irakaskuntza estiloak aurki ditzakegu. Hauek ikaslearen parte- hartze handiagoa eskatzen dute eta arazo baten aurrean ezagutzeko, ikertzeko eta ulertzeko nahia piztea bilatzen da (De Lucas, 2003).

Beraz, ondorioztatu dezakegu bi teknika hauek oso desberdinak direla eta ekintza- motor ezberdinak erakusteko bata bestea baino erabilgarria izan litzatekeela. Izan ere, Saenz Lopez (1997: 145) taula honen bidez bakoitzaren abantailak eta desabantailak zeintzuk diren argi islatzen digu.

| TEKNIKAK | ABANTAILAK | DESABANTAILAK |
|---|---|---|
| *Aginte zuzena* | Aplikazio erraza, ikaskuntza azkarragoa da.<br>Gelaren antolaketa errazagoa. | Indibidualizazioa zailagoa da.<br>Ikaslearen rola pasiboa da. Ez dago eskaera kognitiborik. |
| *Ikerkuntza* | Ikaslea protagonista da.<br>Inplikazio kognitibo handiagoa eskatzen du, indibidualizazioa. | Ikaskuntza motelagoak.<br>Irakaslearen formakuntza handiagoa eskatzen du. |

**1. Taula: Ikaskuntza tekniken abantailak eta desabantailak (Saenz López, 1997: 145)**

## 3.3.2 Irakaskuntza estiloa (IE)

Autore askok izan dira Gorputz Hezkuntzako irakaskuntza estiloei buruz hitz egin dutenak, izan ere, aurrerago aipatu dugun moduan, gai honetan ezagunena den autorea, bere ekarpenak direla eta, Muska Mosston da. Hala ere Sanchez Bañuelosek ere paper garrantzitsu bat jokatzen du alor honetan, 1986. urtean Mosston-en hitzak gaztelerara itzuli baitzituen. Ondoren, Delgado Noguerak Mosstonen estiloei buruz bere interpretazio propioa egin zuen, eta gainera ikerketa batzuk martxan jarri zituen. Baina esan dezakegu guzti honen aita Mosston dela, eta Delgadok eta Sanchez Bañuelosek idei horietan parte hartu dutela. Honen ondorioz, idazle hauek irakaskuntza estiloei buruz egiten duten sailkapena eta deskribapena aztertuko dugu.

Delgado (1991) IEa irakasle- ikasleen arteko interakzioan irakaslea jarduteko duen estilo pertsonala dela esaten du, honek erabaki hartze prozesuan eragina izango duena.

Bestalde, IEak sailkatzerako orduan hainbat irizpide hartu ditzazkegu kontuan, Navarrete Gonzálezen (2010) arabera hauek dira nagusienak:

- Irakaslearen jarrera
- Ikaslearen autonomia maila
- Gelaren antolakuntza
- Helburuak eta edukiak
- Motibazio teknika
- Ebaluazio prozedura edota erabilitako irakaskuntza teknika.

### *3.3.2.1. Irakaskuntza estiloak: Mosston eta Ashworth (1993) jarraituz*

Beste planu batean, Mosstonen (1982) estiloen sailkapena dugu, ondoren Sara Ashworthekekin batera (Mosston eta Ashworth, 1993) aldatu eta hobetutakoa. Sailkapen honetan estiloak erreprodukzio motorrean edo produkzio motorrean desberdinduta agertzen dira, hau da, irakaslearen helburua ikasleak mugimendua imitatzea bada erreprodukzioa erabiliko du (A-E estiloak), eta mugimendua sortzea bada (F-J estiloak), berriz, produkzioa. Mosston eta Asworthek bere liburuan esaten dutenez, “A-E estiloetan ikasleak bakarrik

garapeneko hiru alderdiak lantzen ditu, hau da, fisikoa, soziala eta emozionala, laugarrena, kognitiboa, aldiz, mugatuagoa da. Honen arrazoia ikasleak irakasleak agintzen dionaren arabera mugitzen delako da. A-E estiloak ez dira aurkikuntza prozesuan murgiltzen eta ikasleak ez dira eskainitako datuak edota aginduta lanak baino haratago joaten" Mosston eta Asworth (1993: 195).

| MOSSTON ETA ASHWORTH (1993) |
| --- |
| **Errepodukzio motorra:**<br>• A estiloa: Aginte zuzena<br>• B estiloa: Lanean oinarritutako irakaskuntza<br>• C estiloa: Elkarrenganako irakaskuntza<br>• D estiloa: Auto- ebaluaketa<br>• E estiloa: Inklusioa<br>**Produkzio motorra:**<br>• F estiloa: Aurkikuntza gidatua<br>• G estiloa: Arazoen ebazpena<br>• H estiloa: Programa indibiduala<br>• I estiloa: Ikasle iniziatuak<br>• J estiloa: Auto-irakaskuntza |

**3. Taula: Mosstonen irakaskuntza estiloen sailkapena (Mosston eta Asworth, 1993)**

Autore askok (Delgado, 1991; Sanchez Bañuelos 1986; Contreras, 1998; Saenz Lopez; 1997; Posada, 2000) beraien liburuetan Mosstonen (1993) sailkapena bereganatu dute. De Lucasek (2003: 109) Mosstonen oinarriaz lagunduz ere, bere interpretazioa egin du, izan ere, Lucasen (2003) irakaskuntza estiloen hautaketa egokiena dela uste dut. Azkeneko bien IEn moldaketa pertsonala egin ondoren, hurrengo IEn deskribapena eta azalpena egingo da:

- Aginte zuzena
- Lanen egokitzapena
- Elkarrenganako irakaskuntza
- Banakako programak
- Aurkikuntza gidatua
- Arazoen ebazpena

- Auto irakaskuntza

#### 3.3.2.1.1 Aginte zuzena

Irakasleak protagonismo guztia du eta erabakiak hartzen duen pertsona bakarra da. Bera da zer, noiz eta nola egin behar diren ekintzak zehazten duena (De Lucas, 2003). Estilo hau erabiltzen duten adibideak aerobic-a edo Danza Jazz dira, besteak beste. Mugimendu mekaniko zehatzak ikasteko ere erabilgarria da.

Irakaskuntza- eredu tradizionala jarraitzen du, honek bi betebehar nagusi izatea eragingo du: alde batetik ondo zehaztutako konponbide bat definituta egotea eta bestetik, irakasleak konponbide hori komunikatzeko gai izatea (Contreras, 1998). De Lucasek (2003), Mosston eta Asworthek (1993), Sánchez Bañuelosek (1986), Delgadok (1991), Saenz Lopezek (1997), besteak beste, estilo honek prozesu zehatza eta itxia eramaten duela esaten dute, hiru sekuentziatan banatuta dagoena:




5. **Grafikoa: aginte zuzenaren estiloaren prozesua (De Lucas, 2003: 109)**

#### 3.3.2.1.2 Lanen egokitzapena

Ikaslearen autonomiari dagokionez estilo hau maila bat gorago dago. Ikaslea da noiz hasi, noiz mugitu, zenbat aldiz errepikatu eta zenbat denbora eskainiko dion erabakitzen duena, desberdintasun indibidualak agerian utziz eta arduraren eskakizuna handituz (Contreras, 1998).

Estilo honen prozedura irakaslearen lan zehatz baten azalpenarekin edo demostrazioarekin hasten da, ikasleak bitartean borobilean irakasleari behatzen egongo direlarik. Ondoren, ikasleak gelatik sakabanatuko dira eta irakasleak

egin duena imitatzen saiatuko dira. Irakasleak, berriz, behatzailearen rola hartuko du, ikasleei behar diren zuzenketak eta komentarioak eginez, baita beraiek esan behar dutenari arreta ipiniz. Behin ikasle guztiak, edo gehienak, lana bukatzerakoan borobilera itzuliko dira beste lan batekin hasteko.

Estilo hau irakasteko hainbat era aurkitu ditzakegu (Saenz Lopez, 1997 eta Contreras 1998):

1. Lan bakarra gela osorako: gela osoa lan berdina egiten egongo da, nahi duten errepikapen eta denbora eskainiz.
2. Lanen sekuentzia forma hauek erabiliaz:
    a. *Zirkuitua*: ekintzen jarraipen bat da non ikasle guztiak estazio guztietatik pasatzeko antolatuta dagoen.
    b. *Ibilbide orokorra:* zenbait materiala ipintzen da, bata bestearen atzetik ikaslea haietatik pasatuz eta proposatutako lanak eginez.
    c. *Eredu konplexu baterako progresioa:* adibidez, saskibaloiko saskiaren sarrera. Hasieran baloi gabe egingo da, ondoren baloirekin baina hau botatu gabe, azkenik ekintza baloiarekin eta botatzen egin ahal izateko.
3. Lanen aldaerak zailtasunaren mailaren arabera: ikasleak bere gaitasunei dagokion zailtasun maila aukeratu dezake.

#### 3.3.2.1.3 Elkarrenganako irakaskuntza

Estilo hau, aurrekoan gertatzen zen moduan, autonomiari dagokionez beste maila batean kokatzen du ikasleak, kasu honetan ere irakaskuntza lanetan ebaluazioaren presentzia azpimarratu behar da.

Estilo honen esentzia ikasleak, bikoteka edo hirukoteka antolaturik, irakasleak proposatutako lana burutzea eta bata besteari dagokion zuzenketak egitean datza. Rolen banaketa argia da: batek lanaren exekuzioa egiten ari den bitartean, besteak behatu eta egin behar diren zuzenketak komentatuko ditu, gerora rol aldaketa egiteko (Mosston eta Asworth, 1993; Delgado, 1991; Saenz López 1997; Sanchez Bañuelos; 1989; De Lucas, 2003).

Irakaslearen papera hasieratik ebaluazioa- irizpideak zeintzuk dira argi uztea da, hau da, zer da zuzentasunez egitea eta zer da okertasunez egitea, azalpen hau gabe oso zaila da ikasleen artean irakaskuntza gertatzea (Delgado, 1991). Bestetik, irakaslearen interbentzioa murriztua izango da, bakarrik behatzailearen rola duen ikaslearekin hitz egingo du, zuzenketak zuzen ematen dituela ziurtatzeko helburuarekin (Posada, 2000).

#### 3.3.2.1.4 Banakako programak

Estilo honen bidez ikaslearen autonomia maila osoa eta ardura guztia bilatzen da, ikasle bakoitzak bere programa modu independentean burutzen duelako, irakaslearen papera zeharkako izanik. Ebaluazioari dagokionez, kasu honetan, ikaslea berak egiten du, hau da, bere buruaren auto-ebaluazioa egiten du (Delgado, 1991).

Jarraitzen duen prozedura behaketa orriaren eta egin beharreko lanen deskripzioaren orriaren eraketan oinarritzen da, non ikasleak egin duen lana bertan jasota egongo den. (Contreras, 1998)

Irakaslearen lana behaketa orriak eta lanen deskripzioak egitea izango da. Ikasleak lanean hasi bezain pronto, bere rola behatzailearena izango da, beharrezkoa izango balitz behar diren zuzenketak egingo ditu eta bere interbentzioa ikaslearen eskakizunen araberakoa izango da. (Delgado, 1991).

#### 3.3.2.1.5 Aurkikuntza gidatua

Aurkikuntza gidatuarekin batera ikerkuntza teknika edo mugimenduen sorkuntzan erabiltzen duten estiloen barruan aurkitzen gara, non ikasleari inplikazio kognitiboa eskatzen zaion. Irakasleak ikaskuntzaren orientatzaile gisa funtzionatzen du, ikasleak, berriz, irakasleak proposatutako arazoaren aurrean ikerkuntzaren bidez konponbide bat bilatzen saiatuko da, izan ere, irakaslea ez dio erantzuna emango. Lortu beharreko konponbidea erantzun posible bakarra

du eta eredu mekaniko bat  bilatzea izango da helburua, adibidez, nola burutu eskubaloiko jaurtiketa bat (Saenz Lopez, 1997)




6. **Grafikoa: aurkikuntza gidatuaren prozesua (Contreras, 1998: 288)**

“Estilo honen garapena gaiaren zehaztapenarekin hasten da, hau da, ikaskuntzaren objektuarekin” (Contreras, 1998: 289). Irakasleak aldez aurretik prestaturiko galderak, mugimen- arazo bat suposatuko duten galderak, izango dira ikasleei azkeneko emaitzetara eramango dietena. Galderak nahiko itxiak izan behar dira, ikasleak bilaketaren norabideak argi edukitzeko. Ikasleen erantzunak beti errefortzu batekin lagunduta joan beharko dira, ikasleari gidatzeko erabilgarria izango dena. Garrantzitsua da irakasleak pazientzia edukitzea eta irakaslearen erritmoa errespetatzea. (Posada, 2000)

#### 3.3.2.1.6 Arazoen ebazpena

Estilo kognoszitiboen barruan arazoen ebazpena maila altuenean aurkitzen da. Aurreko estilotik desberdintzen diona emaitza zuzen posibleak dira, kasu honetan, emaitza posible bat baino gehiago izanik. Ikaslearen arakatzearen eta ikerkuntzaren bidez mugimen- arazoak konpontzea bilatzen da, modu honetan sormena landuko delarik. Ondorioz, planteatutako mugimen arazoen hautaketa oso garrantzitsua da, hauek ikasleen interesetatik, jakintzetatik eta esperientziatik abiatu beharko dira.

Aipagarria da estilo honen bidez ez dela eredu zehatz bat bilatzen, aurkitutako erantzun guztiak baliagarriak dira (Hernandez Nieto, 2009). Nahiz eta ikaskuntza motelagoa izan, barneratutako edukiak finkoagoak eta sendoagoak dira, ikasleen aldetik motibazioa maila handiarekin lortutako edukiak dira hauek.

Sailkapen honen bidez argi utzi nahi dugu estilo bat bestea baino hobeagoa ez dela; estilo bakoitzak helburua edo emaitza zehatz batzuk lortzeko bideratuta daudela, beraz, ez dira estiloak bata bestearekin alderatu behar, baizik eta bakoitzak, bete eta lortu nahi diren helburuen arabera, erabilgarriagoak izango dira besteak baino. Mosston eta Ashworthen (1986) hitzak errespetatuz: “Espektroaren oinarri kontzeptualak “ez eztabaidaren” nozioan oinarritzen dira; honela estilo bat hoberena aintzat hartzea saihestuko dugu” (Mosston eta Ashworth, 1986, 14).

#### 3.3.2.1.7 Auto- irakaskuntza

Auto- irakaskuntzaren estiloaren bidez ikasleak erabaki guztiak hartzen ditu, noiz, nola eta non galderei erantzuna emateko arduradun bakarra izanik. Ondorioz, bai irakasle eta bai ikaslearen rolak bereganatzen ditu. (Mosston eta Ashworth, 1993). Estilo hau praktikatzen duenak ez du behatzailerik ezta hartzailerik behar, bera da ikaskuntzaren arduradun eta planifikatzaile bakarra eta edozein momentuan praktikan ipintzeko erabilgarria da.

### *3.3.2.2 Irakaskuntza estiloak: Delgado (1991) jarraituz*

Autore desberdinetan oinarritzen bagara, ikusi dezakegu ez dagoela estiloen sailkapen bakarra. Delgadok (1991), adibidez, IEk bi talde- multzo handietan banatzen ditu: erreproduzio zuzeneko estiloak eta sorkuntza estiloak. Posadak (2000) ere banaketa hau mantentzen du:

| **IRAKASKUNTZA ESTILOEN SAILKAPENA** | |
|---|---|
| **ERREPRODUZIO ZUZENEKO ESTILOAK** | **SORKUNTZAKO ESTILOAK** |
| *Tradizionalak*<br>- Aginte zuzena<br>- Aginte zuzena moldatua<br>- Lanen egokitzapena | *Kognoszitiboak*<br>- Aurkikuntza gidatua<br>- Arazoen ebazpena |
| *Indibidualizatzaileak* | *Sortzaileak* |

| | |
|---|---|
| - Talde lana<br>- Irakaskuntza modularra<br>- Banakako programak<br>- Programatutako irakaskuntza | - Arakatze askea |
| *Parte hartzaileak*<br>- Elkarrenganako irakaskuntza<br>- Talde murriztuak<br>- Mikro-irakaskuntza | |
| *Sozializatzaileak*<br>- Talde lana | |

**2. Taula: Delgadoren irakaskuntza estiloen sailkapenetik (1991) egin dudan elaborazio propioa.**

### 3.3.3. Metodologia berrien bila: Irakaskuntza estiloetatik eredu pedagogikoetara

Mosston eta Ashworthen (1993) eta Delgadoren (1991) IE-en sailkapena aztertu ondoren eta egindako ekarpenen publikazio datak ikusi eta gero, irakaskuntza estiloak eredu pedagogikoekin gaindituta izan direla ikusi dut, hala zenbait autoreek (Peiró eta Julian, 2015, Fernández Río eta Méndez Giménez, 2016, Velazquez, 2010 eta Johnson, Johnson eta Houlubec, 1999) uste dute beste planteamendu berritzaile baten beharra dagoela. Errebisio bibliografikoa egiterakoan, nabaria geratu da aspaldi ez dutela gai honi buruzko beste ikerketarik egin, hori dela eta, ikusteko aukera izan dut gaur egun proposatu den irakaskuntza estiloaren kontzeptu berria, **eredu pedagogikorena** dela. Eredu berritzaile honek biltzen dituen ikuspegi desberdinen artean, eredu pedagogiko berriak aztertzera eraman gaitu, hauen artean ikaskuntza kooperatiboa, kirol hezkuntza, ardura pertsonala eta soziala eta osasunarekin loturiko hezkuntza dira.

### 3.3.4 Ikuspegi berritzailea: eredu pedagogikoak

Heziketa fisikoaren munduan nahiko berria den terminoaren aurrean gaude, honen ondorioz autore gutxi izan dira eredu pedagogikoaz hitz egin dutenak.

Atal hau azaltzeko Peiró eta Julianen (2015) artikuluan *“Los modelos pedagógicos en educación física”-n* oinarrituko gara.

Gorputz hezkuntzaren irakaskuntzan aldaketa metodologikoak egitearen beharretik sortu dira eredu pedagogikoak. Tradizionalki kirol ezberdinen eta mugimen gaitasunen irakaskuntza bata bestearekin harremanik izan gabe ematen ziren, ikasleen gaitasunak eta maila kontuan izan gabe. Egun, “eredu pedagogikoak gorputz hezkuntzaren irakaskuntzarako erreferentzi- marko bat eta  esku- hartzeko plan koherentea eta sakona eskaintzen digu” (Peiró eta Julián, 2015: 10). Modu honetan, esan dezakegu eskolak aldatu direla, horregatik ezin ditu orain dela 30 urte ematen zituen erantzun berdinak eman. Metodologia berritzaileen beharra dago, non hiritar arduratsu eta kritikoak sortzen ditugun, gaur egun dagoen lehiaren aurka borrokatzeko eta bata bestearekin modu baketsuan bizitzeko. (Velazquez et al., 2010).

Eredu pedagogikoak eduki kurrikularretik baino haratago doazen baloreak, estrategiak eta emaitzak dira, Velazquezek (2015: 26) eredu pedagogikoak honela definitzen du: “irakasleak ikaskuntza- prozesuan parte hartzen duten faktoreak eta moduak dira ikasleetan ikaskuntza sustatzeko helburuarekin”

Ardura indibiduala, rol ezberdinen arabera erabakiak hartzea eta elkarrizketa interpertsonalaren sustapena bezalako alderdiak garatzea bilatzen da, hauek ere gelako giroan islatuta agertuko direnak. Modu honetan fisikoki bizi estilo aktiboak erakusteaz gain, bizitza osorako erabilgarriak izango diren ikaskuntzak eskuratuko dituzte gure ikasleek. (Peiró eta Julián, 2015).

Baina eredu pedagogikoaz hitz egiten dugunean zertaz ari gara? Kasu honetan lau eremu ezberdin zehaztu dira: Siedepton-en kirol hezkuntza (ED), ikaskuntza kooperatiboa (AC), Hellison-en ardura pertsonalarentzako eta sozialentzako irakaskuntza (ERPS), proiektuen bidezko irakaskuntza (BPL), ikaskuntza inguruneak (AA)  eta osasunarekin erlazionatutako heziketa fisikoa (EFRS).




7. **Grafikoa: Eredu pedagogiko desberdinak (Peiró eta Julian, 2015: 9). Moldatua 16/04/11.**

#### 3.3.4.1. Siedeptop-en kirol hezkuntza (ED)

Ikasleei kirol ezberdinetan hezitzeko eta beharrezkoa den teknika- taktika garatzeko Siedentopek kirol hezkuntzaren eredu pedagogikoa garatu zuen. Calderon, Hastie eta Martinez de Ojedaren arabera (2011) eredu honen bidez ikasleak ikasitako ezagutzak kirol esperientzia erreal batera (txapelketa bat) transferitzea bilatzen da, irakaslearentzat ikasleen inplikazioa eta motibazioa funtsezko elementuak bilakatuz. Prieto- Ayusok (2014) aurrekoari hau eransten dio: "Siedentopek eredu honen bidez ikasleei konpetenteak, kulturadunak eta kirolari gogotsuak izaten irakatsi nahi die". Orokorrean, esan bezala, eredu hau pedagogia konstruktibista eta kooperatiboa jarraitzen du, non ikasleak talde txikietan jolasean ibiltzen diren bakoitzak rol ezberdin bat izanik eta helburua, besteak beste, hobekuntza teknikoa hobetzea izanik. Honetaz gain, ED-ren bidez ikaslearen autonomian, erresponsabilitatean eta erabakiak hartzean hobekuntza handiak lortzen dira (Calderon, Hastie eta Martinez de Ojeda, 2010)

Méndez-Giménezek, Fernández-Ríok eta Méndez-Alonsok (2013) kirol hezkuntzaren ereduak kirol erakundearen sei ezaugarriez osatuta dagoela esaten dute, hauek hurrengoak dira:

- *Denboraldiak:* denboraldiak kirol erakundeetan egiten dituzten berdinak izan behar dira, unitate didaktikoak 15-20 saioz osatuta egotea bilatuko da. Modu honetan, ikasleak ikasitako trebetasunak, arauak, kontzeptuak… ondo barneratzeko aukera izango dute.

- *Afiliazioa:* Ikasleak denboraldi guztian zehar talde berdinak mantenduko dituzte, honek sozializazioa emateko aukera eskainiz. Calderon, Hastie eta Martinez de Ojedaren (2011) ustez, afiliazioaren bidez taldeko kide guztiak garrantzitsuak sentitzen dira eta denak arrakasta lortzeko ahaleginak egiten dituzte.

- *Lehiaketa formala:* Kirolaren arabera egutegi bat edo beste eramango da eta ikasleak egutegi hori zein den ezagutu beharko dute. Modu honetan, praktikaldien tartean lehiaketak egongo dira, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera paregabea eskainiz.

- *Datuen erregistroa:* Ikasleak partiduetan eman diren gertaerak (asistentziak, baloien lapurretak, lortutako puntuak…) ere jaso beharko dituzte. Erregistro hau ikasleei feedback-a emateko eta beraien motibazioa sustatzeko erabilgarria da. Calderonek, Hastiek eta Martinez de Ojedak (2011) ikasleari bere ikaskuntza prozesuan gidatzeko erabilgarria del esaten dute. Gainera, ikasleei jokalariak izateaz gain beste rolak esperimentatzeko aukera ematen die (behatzailea, arbitroa…)

- *Amaierako fasea:* Jardunaldia bukatzeko errendimendu hoberena izan dutenen taldeen artean lehiaketa txiki bat ospatuko da.

- *Jaialdia:* Jardunaldia bukatzen denean ikasleak lortutako arrakasta ospatuko da. Calderonek, Hastiek eta Martinez de Ojedak (2011) egun horretan egon beharreko elementuak zehazten dituzte: taldeen izenak, beraien kolore adierazgarriak, lortutako emaitzak, praktikaren eremuak, joko garbiaren sariak…

#### 3.3.4.2 Ikaskuntza kooperatiboa (AC)

Gure gizarteak geroz eta azkarrago doazen aldaketak jasaten ari da eta hezkuntzaren munduan aldaketa hauek eragina dute. Gure ikastetxeetan geroz eta arazo gehiago dituzten ikasleak aurkitzen ditugu, Velazquezek et al. (2010) berdinen arteko erasoaz, eskola- jazarpenaz, lehiakortasunaz, bakarkakotasunaz eta irakasleak sufritzen duten erasoaz hitz egiten dute.

Velazquezen aurreko hitzak kontuan hartuta eredu pedagogiko ezberdinen artean, gaur egungo gizartea eta eskolak kontuan izanik, ikaskuntza kooperatiboan zentratzea erabaki aproposena dela uste dugu. “Azkeneko urteetan, autore ezberdinak ikaskuntza kooperatiboa, ikasleak helburuak lortzeko duen gaitasunagatik eta bere prozesu egituratuagatik, eredu pedagogiko nagusiena identifikatzen dute, non ikaskuntza, irakaskuntza, edukiak eta testuinguruak bata bestearekin harremanetan dauden” (Velazquez, 2015: 26).

Baina zer ulertzen dugu ikaskuntza kooperatiboaz hitz egiten dugunean? Nahiz eta autore askok beraien proposamen praktikoak egiterako orduan irakaskuntza kooperatiboa erabili, oso gutxi dira eredu honetaz sakonki hitz egin dutenak. Espainia mailan gai honetan aipagarriak diren autoreak Carlos Velazquez eta Javier Fernández Río dira, besteak beste.

Velazquez et al. (2010) arabera, ikaskuntza kooperatiboa talde txikietan helburu berdina lortzeko egindako lan bezala definitzen dute, non ikasleak elkarrekin lan egiten duten bakoitzaren eta besteen ikaskuntza lortu ahal izateko. Eredu honen arrakasta jakintza maila ezberdina dituzten ikasleen arteko informazioaren aldaketan dago, trebea dena hain trebea ez denari irakasten dio, biek onura positiboak eskuratuz. Ikasleak beraien ikaskuntzaren arduradun bakarrak dira.

Bestetik, Fernandez Ríok eta Méndez Giménezek (2016) definizio honi orain dela gutxi sorturiko ideia txertatzen dute, ideia hau irakasle- ikaslearen arteko ikaskuntzan oinarritzen da, hau da, ikaskuntza kooperatiboan ikasleen arteko ikaskuntza emateaz gain, irakaslea ere ikasleak egiten dutenarekin ikasten duela sinesten da, ikasleen parte- hartzea eta inplikazioa funtsezkoa bilakatuz.

Honetaz gain, irakaskuntza- ikaskuntza egoera kooperatibo batean irakasleak duen arduraren eta protagonismoaren zati bat ikasleei ematen dio oinarrizko bi helburuak garatzeko: ikasten ikasteko eta bizitza osorako jakintzak eskuratzeko.

Bestalde, Johnson, Johnson eta Holubec (1999) lan- taldeko ekintzetan hainbat egoera negatiboak aurkitu zituzten, hauek ekiditeko asmoz ikaskuntza kooperatiboak eduki behar dituen funtsezko elementuak zehaztu zituzten:

- Interdependentzia positiboa
- Aurrez- aurreko interakzio
- Ardura indibiduala eta taldekoa
- Teknika interpertsonalak eta taldekoak
- Taldeko ebaluazioa

*Interdependentzia positiboa:* definizioan aipatu dugun moduan ikasle bakoitzak bere ikaskuntzaz eta baita besteen ikaskuntzaz arduratu beharko da (Velázquez, 2015). Ardura bikoitza honi erreferentzia egiteko erabiltzen dugun terminoa interdependentzia positiboa da. Honen bidez ikasleek argi dute zein den egin beharreko lana eta lortu beharreko helburua, gainera kontzienteak dira beraien parte- hartzea funtsezkoa dela, bai berarentzako zein taldearentzako. Ondorioz, interakzio positiborik gabe kooperazio ez zen egongo.

*Aurrez- aurreko interakzioa:* ikasleak helburu berdina lortzeko lan egiten duten bitartean bata besteari zoriontzen eta animatzen direnean gertatzen da aurrez- aurreko interakzioa (Martín eta Peno, 2012). Beraien pentsamendua talde batena izan behar da, indibidualtasuna saihestuz. Bakoitzaren ekarpenak taldearentzat erabilgarriak direla ikusita taldearekiko konpromisoa handitu egingo da, ondorioz taldearen funtzionamendua hobetu egingo da.

*Ardura indibiduala eta taldekoa:* taldeak proposatutako helburuak lortzeko ardura bereganatu beharko du, baita taldekide bakoitzak arduratsua izango da egokitutako lanarekin. Inork ezin du besteak egindako lanez aprobetxatu eta bakoitzak taldearen arrakasta bilatzeko esfortzuak egin beharko ditu. (Johnson, Johnson eta Holubec, 1999) Taldeak bi alderdi hauek ebaluatzeko gai izan

behar da: helburuak lortzeko eraman duten prozesua eta taldekide bakoitzaren esfortzuak.

*Teknika interpertsonalak eta taldekoak:* taldean lan egitea ez da lan erraza, horregatik gure ikasleei talde batean nola kooperatu behar duten erakutsi behar diegu, hau da, trebetasun sozialak eskuratu behar dituzte taldean modu antolatuan lan egiteko (Solana, J.A., 2015) Taldearen parte- hartzaileak jakin behar dute nola hartu erabakiak, taldea nola zuzendu, nola komunikatu, gatazkak nola konpondu eta nola sortu konfiantzazko giroa. Taldearen funtzionamendua bermatu nahi badugu, teknika interpertsonala eta taldekoak beharrezko dira.

*Taldeko ebaluazioa:* ebaluazio honen bidez taldearen hausnarketa egitea bilatzen da, hau da, noraino lortzen ari diren zehaztutako helburuak eta taldearen funtzionamendua eta harremanak nola bideratzen ari diren. Honela zein jarrerak mantendu eta zeintzuk aldatu behar diren ohartuko gara (Velázquez, 2010).

#### 3.3.4.2.1 Jolas kooperatiboa

Jolas kooperatiboak ikaskuntza kooperatiboa burutzeko aurrera eramaten diren ekintzak dira non helburu nagusia ondo pasatzea den. Orlick-en (1986) arabera jolas hauek besteez desberdintzen dion ezaugarri batzuk biltzen dituzte: kooperazioa, onarpena, parte- hartzea eta dibertitzea. Kooperazioaren bidez gure ikasleak elkarrekin lan egiten ikasiko dute, gainera jolas kooperatiboei esker umea baliagarria sentituko da taldean betebehar eta funtzio bat duelako (onarpena). Ikasleak taldearen, saioaren, arrakastaren parte sentitu nahi dira, ez zaie kanporatua izatearen sentimendua gustuko (parte- hartzea), horregatik kontuan izan behar dugu umeak dibertitzeko jolasten duela eta benetan ondo pasatzen duenean (dibertitzea) akatsari beldurra galtzen diola. Ondorioz, benetako ikaskuntza ikaslea ondo pasatzen eta dibertitzen denean emango da (Orlick, 1986).

| JOLAS KOOPERATIBOEN EZAUGARRIEN ZERGATIA | |
|---|---|
| Kooperazioa | Elkarrekin komunikatzeko |
| Onarpena | Autoestimua eta poza handitzeko |
| Parte- hartzea | Lagungarria eta baliagarria sentitzeko |
| Dibertitzea | Ikaskuntza emateko |

**4. Taula: Jolas kooperatiboen zergatia. Elaborazio pertsonala Orlick (1986) oinarrituz.**

Garaigordobil (2005) ez du jolas kooperatiboaz zehazki hitz egiten baina bai jolasen eta kooperazioaren inguruan. Bere ustez, bai jolasak eta bai kooperazioak umearen garapenari hainbat ekarpen egiten dizkio, hauek sozializatzeko tresna, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko bidea eta irudimenaren eta sormenaren iturburuak direla kontsideratzen du.

Jolas kooperatiboaz hitz egiten dugunean zer ulertzen dugun argi utzi eta gero, irakasle askoei laguntzeko asmoz, autore askok (Velázquez, 2010, Martín eta Peno, 2012 eta Omeñeca eta Ruiz, 2014) ikaskuntza kooperatiboaren eta jolas kooperatiboaren desberdintasunak azaltzea beharrezkoa ikusten dute. Horretarako Velazquezen "Aprendizaje cooperativo en Educación Física" liburutik ateratako konparaziozko taula erabili dugu.

| IKASKUNTZA KOOPERATIBOA | JOLAS KOOPERATIBOA |
|---|---|
| Metodologia | Ekintza |
| Helburua: ikastea | Helburua: ondo pasatzea |
| Beharrezko elementuak: interdependentzia positiboa, aurrez aurreko interakzioa, ardura indibiduala eta taldekoa, trebetasun interpertsonalak eta taldekoa eta taldeko ebaluazioa. | Ez da beharrezkoa elementu guztien presentzia, bereziki ardura indibiduala. |
| Lehiakortasun intergrupala existitu daiteke | Parte hartzaileen artean aurkaritzarik ez da agertzen. |

**5. taula: ikaskuntza kooperatiboa vs jolas kooperatiboa (Velazquez, 2010:48)**

### 3.3.4.3. Hellison-en ardura pertsonalarentzako eta sozialentzako irakaskuntza (ERPS)

Hellison-en programa, “Programa de Responsabilidad Personal y Social”, ikasleen jarrera arriskutsuak murrizteko eta trebetasun sozialak eta integrazioa hobetzeko erabilgarrienetariko eta osatuenetariko bat bilakatu da.

Escartik (2005) gazteak giro ez egokietan murgiltzeko arrazoien artean lau faktore taldeak identifikatu ditu:

1. Sozialak eta dibertimenduzkoak, talde baten parte hartzailea izateko.
2. Giro familiarrekin eta sozialekin lotutakoak.
3. Gaitasun sozialen, errespontsabilitateen eta auto-kontrolaren gabezia.
4. Etorkizunarekiko baikortasuna falta.

Egoera honen aurrean, gorputz hezkuntzaren bidez gazte hauek balore pertsonal positiboak (errespetua, enpatia, autogestioa) eta jarrera prosozialak garatzea bilatzen da (Peiró eta Julián, 2015). Kasu honetan Escatiren (2005: 1) hitzak aipagarriak dira: “Beharrezkoa da esku hartze sozialeko programak planteatzea, gazteak errekurtso kognitiboak eta psikologikoak garatzeko aukera eskaintzeko, zer den ona eta zer den txarra interpretatzen laguntzeko eta horren arabera kontsekuenteki jokatzeko”.

Peiró eta Julianek (2015), Hellisonen ideietan oinarrituz, ikasleek errespontsabilitatea progresiboki garatzeko bost maila zehazten dituzte:

1. *Maila. Besteen sentimenduen eta eskubideen errespetua:* besteei entzun, txandak errespetatu, hitz egiten dagoenean ez moztu…
2. *Maila. Parte- hartzea eta esfortzua:* ikasleak ekintzetan parte hartu behar du, zereginetan aurkitu dezakeen zailtasunei aurre eginez
3. *Maila. Autogestioa:* Bidalitako zereginak egiterako orduan, beraiek izan behar dira denbora kontrolatu behar dutenak eta beregain hartzen dituzten errespontsabilitateen arduradunak.
4. *Maila. Ulerkorra eta bihozbera izan:* ikasleak besteez zaindu eta elkarrekin proiektuak egiten ikasi behar dute.

5. *Maila. Ikasitakoa beste testuinguruetara transferitu*: programan ikasitakoa eskolatik kanpo erabiltzen ikasi beharko dute.

#### 3.3.4.4. Proiektuen bidezko irakaskuntza (PBL)

Proiektuen bidezko irakaskuntza (PBL) ikasleak beraien ikaskuntza prozesua eraikitzeko askatasun guztia ematen dion eredu pedagogikoa da. Bengoecheak eta De los Santosek (2011) PBL-aren bidez ikasleak egokienak diren estrategiak eta errekurtsoak hautatzeko askatasun guztia dutela aipatzen dute, autonomia eta gaitasun kognitiboa garatuz.

Blanchardek (2014) proiektuen bidez ikaslea protagonista dela esaten du eta, kasu honetan, irakaslearen rola ikaslearen konpetentzien garapenaren gidaria da. Gainera eredu honek dituen bi abantaila nagusi aipatzen ditu: ikaslearen ikasteko nahia sustatzen du eta ikaskuntza prozesua ikasleak planteatutako interesetatik abiatzen da.

Bestetik, Araguz (2015) edozein proiektuak izan behar duen bi irizpideak azalarazten ditu: lehenengoa, ikasleentzako zentzua eduki behar du, hau da, erabilgarritasuna eduki behar du, ondoren haiek ondo egiteko nahia sentitu dezaten. Bigarrena, helburu hezitzailea izan behar du, materia edota gaiaren araberakoak.

Proiektuen bidezko irakaskuntza gorputz hezkuntzaren arloari dagokionez Bengoecheak eta de los Santosek (2011: 8) lau fase zehazten dituzte:

1. Ekintzarekin lehenengo kontaktua: zertarako izango da erabilgarria?
2. Ikasleak duten praktika maila ezagutzea: ze maila daukate?
3. Ikasi eta aurrera egin: proiektuaren exekuzioa eta autonomia.
4. Aurrerapenen eta proiektuaren ebaluazioa: erabilgarria da ikasi dudana?

#### 3.3.4.5. Ikaskuntza giroak (AA)

Ikas giroak (AA) espazioaren eta materialen antolakuntza eraginkorra da, non ikaslea bere irakaskuntza- prozesuan protagonista den. Vazquezek (2016) eredu pedagogiko hau izan behar dituen bi puntu garrantzitsuak aipatzen ditu,

irakasleak ez duela ikaslea gidatu behar, hau da, umeak jolasteko eta arakatzeko askatasun guztia izan behar duela eta bizikidetza emateko arau batzuk jarraitu behar dituztela.

AA-ren ezaugarriak, Orregoren eta Saenz Lopezen (2013) aburuz, hurrengoak dira:

- Ikaslea bere ikaskuntza eraikitzeko aukera izatea, espazio antolatu baten barruan non bere beharren eta motibazioen arabera mugitzeko eta askatasunez jolasteko aukera izango duen, edozein hezkuntza prozesuaren protagonista izanik.
- Gorputz hezkuntzaren saioetan jolas librea errekurtso didaktiko nagusia bilakatzea.
- Irakaslearen esku- hartzearen estrategia nagusiak espazioen eta materialen antolakuntza izatea.

Jurado, J.L. et al. (2006) hiru irakaskuntza giro mota ezberdinak aurkitu ditzakegula esaten digute:

1. Giro definituak: espazioa eta materialaren antolakuntza finkoa da, saioan zehar aldaketarik sufritu gabe.
2. Giro semidefinituak: aldaera txikiak egoten dira, adibidez, materialen kokapenean.
3. Giro ez definituak: bakarrik saioaren hasieran materialen aurkezpena egiten da, ondoren umeen motibazioaren, harremanen eta behar pertsonalen arabera espazioa zehazten joango da.

### 3.3.4.6. Osasunarekin erlazionatutako heziketa fisikoa (EFRS)

Eredu pedagogiko honen bidez ikasleak heziketa fisikoaren bidez bizitza osorako ohitura osasuntsuak eta fisikoki aktiboak eskuratzea eta elikadura egokia jarraitzea bilatzen du (Peiró eta Julián, 2015)

Rangelen (2011) ustez, lau arrazoi nagusietatik abiatuta, gorputz hezkuntzak osasunaren aldeko apustua egin beharko luke:

1. Hazkuntzan eta garapenean eragina duelako
2. Esperientzia berriak izaten laguntzen duelako
3. Bizitza osorako delako
4. Modu prebentiboan jokatzen duelako.

Bestetik, Devisek eta Peirok (2002) heziketa fisikoa egiterakoan errespetuzko eta kolaboraziozko giroa bilatu behar dugula esaten dute, non ikasleak egiten duen praktikaren bidez gogobetetzea aurkitzen duen. Gainera aurreko bi autoreek praktika dibertigarria izan behar dela uste dute, modu honetan etorkizunean gazteak heziketa fisikoa egiten jarraitu nahi izango dute, bizitza osorako ohitura aktiboak finkatuz. “Autore batzuen aburuz pertsonaren bizitza guztiz osasuntsua izan daiteke baldin eta bizitza disfrutatzeko gai bada, osasuntsua da dibertigarria bada hitzak defendatuz” (Devis eta Peiró, 2002: 76).

Peirok, Pérez Gimenok eta Valenciak (2012: 32) irakasleak izango garenoi EFRSren eredu pedagogikoaren praktika egokia egiteko asmoz, hainbat printzipio pedagogiko eskaintzen dizkigute, aldi berean, errespetua, autonomia eta inklusioa bezalako baloreak transmitituz:

- Ikasleen ezaugarri pertsonalak kontuan izan eta beraien mugak eta gaitasunak errespetatu.
- Ikasleei esperientzia positiboak eta gogobetekoak eskaini.
- Ikasleen gorputzaren ezagutza eta onarpena sustatu, baita besteenganako errespetua ere.
- Testuingurua praktiko batean ikaskuntza esanguratsua erraztu.
- Ikaslearen autonomia eta errespontsabilitatea sustatu.
- Parte-hartzeko eta prozesuan zentratutako ebaluazioa nagusitu.

# 4. LANAREN HELBURUAK

Nire lanaren oinarria bilaketa bibliografiko bat egitea izan da. Irakaskuntza estiloen inguruko informazioa jasotzen hasi nintzenean, 2000. urtetik aurrera gai honen inguruan ia argitalpenik ez zeudela ohartu nintzen, hori dela eta, gaur egungo gorputz hezkuntzaren metodologiaren inguruan zer zegoen publikatuta ikusi nahi nuen, lanari ikuspegi berritzaileago bat emateko asmoz, ondorioz, horren inguruan indusketa egitea erabaki nuen.  Era honetan lan honen bidez bilatutako helburuak hurrengoak izan dira:

- Irakaskuntza estiloen inguruan eta eredu pedagogikoen inguruan zer nolako publikazio motak dauden ezagutzea.
- Irakaskuntza estiloen inguruan eta eredu pedagogikoen inguruan dauden publikazioak zer nolako trataera ematen dioten gaiari.
- Irakaskuntza estiloen inguruko eta eredu pedagogikoen inguruko publikazio datak konparatzea.
- Bilatzaile ezberdinen arabera irakaskuntza estiloen inguruan eta eredu pedagogikoen inguruan zenbateko informazioa dagoen konparatzea.
- Hitz- gako ezberdinak erabiliaz zer nolako informazioa aurkitu dudan kontrastatzea.
- Eredu pedagogikoaren gaia zabala denez, gizartearen beharrak direla medio, eredu pedagogiko ezberdinen azalpena eta deskribapena egitea, ikaskuntza kooperatiboan gehiago sakonduz.

# 5. METODOLOGIA

## 5.1 NOLA ANTOLATU DUT GrAL-a

Kurtso hasieratik buru belarri hasi gara GrAL-arekin. Gure lehenengo pausua bilaketa itsua egitea izan zen, hau da, gure gaiaren inguruan aurkitzen genuena biltzen hasi. Gerora bilaketa gidatua egin genuen, pixkanaka bilatzaileak eta hitz gakoak kontuan hartuz eta marko teorikoaren hezurdura eginez. Momentu horretan genuen informazioarekin marko teorikoa idazten hasi ginen, marko teorikoaren atal bakoitzean paragrafo bat idatziz. Ondoren, zer egin nahi genuen galderari erantzuna bilatzen hasi ginen, orduan landa lana egiten hasi ginen, baita landa- lanaren kronograma ere. Lanaren helburuak ere finkatzen hasi ginen. Bukatzeko sarrera eta justifikazioa egin genuen.

| NOIZ | ZEREGINA | HELBURUA | TRESNA |
|---|---|---|---|
| Irailaren 16rako | GrALari buruzko tailerra | Nondik abiatu behar gara?<br>Zer egin nahi dugu? (esku hartzea, bilketa bibliografikoa…)<br>Ze tresnak erabiliko ditugu? (ebaluazio fitxak, bilatzaileak…) | Mariatek aurkeztutako Power Point-a |
| Irailaren 21erako | Bilaketa itsua | Gure gaiari buruz aurkitzen dugun informazioa jaso (liburuak, artikuluak, blogak…) | Dialnet, EHU liburutegia, Google akademikoa |
| Irailaren 28rako | Bilaketa gidatua<br>Bilaketa itsuaren ondorioak<br>Marko teorikoaren hezurdura | Zeintzuk izan dira bilatzailean sartu ditudan hitz gakoak. Jarraitu gaiari buruzko informazio gehiago bilatzen. (liburuak, artikuluak, blogak, TFGak…) | Dialnet, EHU liburutegia, Google akademikoa, Erih, Inguma, ADDI, Miar |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| Urriak 5erako | Marko teorikoa<br>Galdera motorra | Marko teorikoa idazten hasi.<br>Gure GrALari zentzua emango dion galdera motorra zein den pentsatu. | |
| Urriak 12rako | Marko teorikoa<br>Lanaren eta landa- lanaren kronograma | Marko teorikoa garatzen jarraitu.<br>Lana kurtsoan zehar taula batean nola antolatuko duzun bildu, baita landa lana ere. | |
| Urriak 19rako | Marko teorikoa<br>Lana eta landa- lanaren kronograma<br>Lanaren helburuak | Marko teorikoa ia bukatuta.<br>Lana eta landa- lanaren kronogramak eginak.<br>Lanaren helburuak zeintzuk diren idatzi. | |
| Maiatzak 29rako | Sarrera eta justifikazioa | | |
| Apirilaren 5erako | Marko teorikoa | Marko teorikoa behin betiko bukatu. | |
| Apirilaren 10reko | Metodologia | Metodologia zehaztu: hitz gakoak, bilatzaileak, aukeraketaren irizpideak... | |

**6. Taula: Lanaren kronograma**

## 5.2 LANDA- LANAREN DISEINUA

Nira landa- lana bilketa bibliografiko bat egitea izan da, irakaskuntza estiloen eta eredu pedagogikoen inguruan zer dagoen idatzita ikusteko. Horretarako bilatzaile ezberdinetan sartu eta gai horien inguruan publikatuta zegoena ikustea izan zen nire lehenengo urratsa. Momentu horretan irakaskuntza estiloen inguruan informazio gutxi zegoela konturatu nintzen, orduan eredu pedagogikoen inguruko zerbait bilatzea bururatu zitzaidan. Beraz, bilketa bibliografikoa bi gaien ingurukoa izango zen, irakaskuntza estiloak eta

eredu pedagogikoak. Bukatzeko gai horien inguruan bildu nuen informazio guztia sailkatzeko erabiliko nituen irizpideak pentsatzen hasi nintzen, horiek bien arteko desberdintasun nabariak erakutsiko zituzten irizpideak hautatzea erabaki nuen.

| NOIZ | ZEREGINA | TRESNA |
|---|---|---|
| Apirilaren 8rako | Bilatzaile ezberdinetan “ikaskuntza kooperatiboa gorputz hezkuntzan” gaiari buruz dagoena kontsultatu. | Dialnet, Google akademikoa, hezkuntzako aldizkariak: Tandem, Agora, Apunts, La Peonza, Retos, Wanceulen, EHUko liburutegia |
| Apirilaren 10reko | Eremua zehaztu eta bilaketa zehatzago bat egin. | |
| Apirilaren 12rako | Lortutako informazioa zehaztutako irizpideen arabera sailkatu. | |

**7. Taula: Landa- lanaren kronograma: bilketa bibliografikoa**

Marko teorikoan aipatu dudan moduan, nire lana osatzen joateko asmoarekin, irakaskuntza estiloen inguruan informazioa bilatzen hasi nintzen, baina gai horren inguruan informazio gutxi eta zahartuta zegoela ohartu nintzen. Orduan, artikulu batean hainbat autoreek (Velazquez, 2010, Fernández Río eta Mendez Giménez, 2016, Peiró eta Julián, 2015) gorputz hezkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza metodologietan aldaketak egitea beharrezkoa ikusten zutelaren ideia topatu nuen, honen ondorioz autore hauek proposatzen zuten planteamendu berriaren inguruan, zehazki eredu pedagogikoen inguruan, zer zegoen publikatua begiratzea bururatu zitzaidan. Horregatik, informazio guztia bilduta gelditzeko helburuarekin eta nire etorkizunari begira baliagarria izango den informazioa eskuratzeko asmoarekin **bilaketa bibliografiko** bat egingo dut.

Hori dela eta, artikuluak eta liburuak bi gai nagusietan banatuta egongo dira, alde batetik irakaskuntza estiloekin zer ikusia duten publikazioak eta bestetik ikaskuntza kooperatiboarekin edo eredu pedagogikoekin zer ikusia duten publikazioak. Modu honetan azkeneko hamar urteetan gai bakoitzari buruz zenbat informazioa dagoen ikusiko dugu.

## 5.3 Landa-lana egiteko jarraitutako prozedura eta analisia egiteko prozedura

Gaia oso zabala denez, mugatzeko intentzioarekin nire bilaketa Lehen Hezkuntzaren eremura mugatuko dut. Hizkuntzari dagokionez gaztelaniaz zein euskaraz izango da eta informazio guztia Interneten eskuragarri egotea eskatuko da, honela norbaitek gai honen inguruan interesatuta egongo balitz, lan hau begiratzearekin informazioa eskuratzeko gai izango zen. Gainera, publikazio datak azkeneko 16 urtekoak izan beharko dira.

Bestalde, datarik, autorerik eta inongo erreferentziarik gabe aurkitu ditudan artikuluak bilketatatik baztertuak izan dira.

| BAZTERTZE ETA INKLUSIO IRIZIDEAK | |
|---|---|
| **Irakaskuntza estiloak** | **Eredu pedagogikoak/Ikaskuntza kooperatiboa** |
| Gaia: irakaskuntza estiloak gorputz hezkuntzan | Gaia: ikaskuntza kooperatiboa edo eredu pedagogikoak gorputz hezkuntzan |
| Hitz gakoak: “estilos de enseñanza”, “educación física”, “enseñanza de la educación física”, “didáctica de la educación física”. | Hitz gakoak: “aprendizaje cooperativo”, “aprendizaje cooperativo en educación física”, “modelos pedagógicos en educación física”. |
| Eremua: Lehen Hezkuntzan | Eremua: Lehen Hezkuntzan |
| Denbora- tartea: azkeneko 16 urteak | Denbora- tartea: azkeneko 16 urteak |
| Hizkuntza: Gaztelaniaz edo euskaraz | Hizkuntza: Gaztelaniaz edo euskaraz |
| Informazioa Interneten eskuragarri egon behar du | Informazioa Interneten eskuragarri egon behar du |

**8. Taula: Bilaketa egiteko erabilitako irizpideak**

Gaiarekin lotutako informazio aurkitzeko erabili ditudan hitz gakoak gaztelaniaz izan dira, hizkuntza horretan euskaraz baino informazio gehiago dagoelako. Irakaskuntza estiloei buruzko informazio bilatzeko erabili ditudan hitz gakoak hauek izan dira: “estilos de enseñanza”, “educación física”, “enseñanza de la educación física”, “didáctica de la educación física”. Ikaskuntza kooperatiboari edo eredu pedagogikoei dagokionez hitz gakoak hurrengoak izan dira: “aprendizaje cooperativo”, “modelos pedagógicos”, “educación física en educación primaria”, ”juegos cooperativos”, “desafíos cooperativos”, “estructuras de aprendizaje cooperativo”. Izan ere, ikaskuntza kooperatiboaren inguruan bilaketa egitea erabaki da eredu pedagogiko ezberdinen artean interesgarriena eta gaur egungo gizartea ikusita, nire ustez, beharrezkoena delako, gainera bere aplikazioaren erraztasuna asko laguntzen du gorputz hezkuntzaren arloan hasi berri garen irakasleei.



Bilatzaile desberdinetan artikuluak zein liburuak aurkitzeko lehenik eta behin “estilos de enseñanza” alde batetik, eta bestetik “aprendizaje cooperativo”

hitzak sartu nituen. Emaitza gehienak irakaskuntza estiloak zein ikaskuntza kooperatiboa gela batean aplikatzeko baliagarriak ziren baina ez gorputz hezkuntzako saio batean. Ondorioz “educación física” kontzeptua erantsi nien, aurkitutako emaitzak mugatzeko. Azkenean, bilketa bibliografiko honetan “estilos de enseñanza en educación física”-ren eta “aprendizaje cooperativo educación física”-ren kontzeptuekin aurkitu dudan informazioa guztia aurkituko duzue.

Bilaketaren irizpide nagusia *helburua* izan da, hau da, autoreek liburu zein artikulu bakoitzean islatu nahi zuten intentzioa izan da kontuan hartu dudana. Bildutako informazio guztia helburu bera betetzen dute: ikaskuntza estiloen zein ikaskuntza/jolas kooperatiboaren teoria azaltzea eta praktikari buruzko zenbait adibide edo orientabide ematea, bai *erronka kooperatibo*, bai *egitura kooperatibo* ezberdinen erabileraren bidez.  Azken finean, lan honen helburu nagusia gorputz hezkuntzaren irakaskuntzari buruzko ideia berritzaileak biltzea da, etorkizunari begira praktikara eramateko baliagarriak izango direlakoan.

<table>
<tr><th>GAIAK</th><th>SAILKAPEN IRIZPIDEAK</th></tr>
<tr><td>Ikaskuntza kooperatiboa eta eredu pedagogikoak</td><td rowspan="2">- Publikazio mota<br>- Aldizkariak<br>- Gaien trataera<br>- Hitz- gakoak<br>- Konparaketak:<br>○ Publikazio motak<br>○ Publikazio datak<br>○ Gaien trataera<br>○ Bilatzaileak</td></tr>
<tr><td>Irakaskuntza estiloak</td></tr>
</table>

**9. Taula: Bilketa bibliografikoaren sailkapen irizpideak.**

Bilatzaileei dagokionez, hezkuntzari bideratuta dauden hainbat aldizkari begiratu ditut, hala nola, Agora, Apunts, EmasF, La Peonza, Lecturas, Retos, Wanceulen. Aldizkariaz gain, liburuak biltzeko intentzioarekin Dialnet, Google Académico eta EHUko liburutegia kontsultatu ditut.

Irakaskuntza estiloen eta ikaskuntza kooperatiboaren inguruan bildu den informazio guztiarekin eta irizpide desberdinak kontuan izanik, analisi kuantitatiboa egingo da. Finkatutako irizpideak hurrengoak dira: publikazio mota, aldizkaria, gaiaren trataera eta hitz- gakoa. Atal honen amaieran bi gaien arteko konparaketak agertzen dira, ezberdintasunak grafiko berean ikusteko aukera eskainiz.

Emaitzak azaltzerako orduan, bi gaien artean egon zezakeen desberdintasun nabarmenak hautatu ditut, adibidez, publikazio datak; banekien datak grafiko batean ipiniz gero, bien arteko aldea handia izango zela, horrek ondorioak ateratzerako orduan argudiatzeko laguntza indartsua eskainiz. Beraz, bi gaien artean irizpide erabakigarriak aukeratzea izan da nire ideia, gerora ondorio argiak eta begi bistakoak atera ahal izateko.

# 6. EMAITZAK

Emaitzei dagokionez bilketa bibliografikoa egiterako orduan bai irakaskuntza estiloen eta bai eredu pedagogikoen gaiak kontuan hartu dira. Izan ere, informazioa publikazio moten arabera sailkatu dugu, liburuetan, artikuluetan, Tesietan, Gradu Amaierako Lanetan eta Blog-etan zehazki.

Alde batetik, irakaskuntza estiloen inguruko 29 publikazio topatu ditugu, horietatik 6 liburuak, 11 artikuluak, Tesi bat, 3 GrAL-ak eta 8 Blog-ak dira. Bestetik, eredu pedagogikoen 74 argitalpen aurkitu ditugu, horietatik 9 liburuak, 40 artikuluak, 4 Tesiak, 11 GrAL-ak eta 10 Blog-ak dira. Guzti horiek ikusgarri daude 1. eranskinetako tauletan.

Izan ere, orain argitalpen guztiekin irizpide ezberdinen arabera sailkatuko dira analisi kuantitatibo bat egiteko, emaitzak grafiko ezberdinetan adierazita agertuko direlarik:

## 6.1 PUBLIKAZIO MOTA

### IRAKASKUNTZA ESTILOAK




**9. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen publikazio motak**

Gorputz hezkuntzaren irakaskuntza estiloei buruzko 6 liburu, 11 artikulu, tesi bat, 3 Gradu Amaierako Lan eta 8 Blog-ak topatu ditugu, guztira 29 eginez. Kasu honetan, publikazio mota altuena artikuluena izan da eta gutxiena Tesiena. Grafikoan ikusi dezakegunez, azkeneko 16 urteko irizpidea kontuan hartuz eta eredu pedagogikoekin alderatuz, informazioaren kantitatea eskasagoa da.

## EREDU PEDAGOGIKOAK




**10. Grafikoa: Eredu pedagogikoen publikazio motak**

Publikazio motari dagokionez eredu pedagogikoei buruzko 9 liburu, 40 artikulu, 4 tesi, 11 Gradu Amaierako Lan eta 10 blog aurkitu ditugu, guztira 74 eginez. Hauen artean informazio gehien biltzen duen publikazio mota artikuluena izan da eta gutxiena, berriz, tesiena. Esan beharra dago informazio askoz gehiago dagoela, baina gure lana mugatzeko asmoz 60- 80 artikulu, liburu, tesi, GrAL eta blog-en artean ikertzea aproposena zela iruditu zaigu, azkenean 74 publikazio ezberdinak bilduz.

### 6.1.1. Aldizkariak

**IRAKASKUNTZA ESTILOAK**




**11. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen inguruan argitalpenak egin dituzten aldizkariak**

Irakaskuntza estiloei buruzko aldizkari espezifikorik ez dago, hala ere, gai honen inguruan idatzi duten hainbat aldizkari topatu ditugu. Revista Digital efdeportes izan da artikulu gehien aurkitu ditugun lekua, zehazki 3 artikulu izan dira. Horretaz gain agertzen diren gainontzeko aldizkarietan artikulu bakarra topatu dugu.


ALDIZKARIAK
2%
2%
31%
5%
8%
8%
2%
3%
24%
3%
3%
3%
3%
3%
Movimiento
La gaveta
La peonza
Retos
Revista Digital EF
Revista Española de EF y Deporte
Revista Iberoamericana
Revista Nacional e Internacional de Educación Inclusiva
Tandem
Paiderex
Rev. Int.Medic.Cienc.Act.Fis.
Cultura, ciencia y deporte
Revista de Educación
Revista Digital Práctica Docente

**12. Grafikoa: Eredu pedagogikoen inguruan argitalpenak egin dituzten aldizkariak**

Hainbat izan dira artikuluak aurkitzeko kontsultatu ditudan aldizkariak. Izan ere, ikaskuntza kooperatiboari eta eredu pedagogikoei buruzko informazio gehiena biltzen duen aldizkaria La Peonza izan da, Carlos Velazquezek sortutakoa eta ikaskuntza kooperatiboari eta eredu pedagogikoei buruzko 12 artikulu biltzen duena. Bere atzetik Gorputz Hezkuntzaren Didaktikan hain ezaguna den aldizkaria dugu, Tandem, 9 artikuluekin. Gainontzekoak nahiko parekatuak egon dira 1, 2 edo 3 artikuluekin.

## 6.2 GAIAREN TRATAERA

### IRAKASKUNTZA ESTILOAK




**13. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen inguruko liburuen gaiak**

Irakaskuntza estiloei buruzko 4 liburu aurkitu dira, horietatik 3 planteamendu pedagogikoaz hitz egiten dute eta batek planteamendu pedagogikoa eta proposamen praktikoak eskaintzen digu.




**14. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen inguruko artikuluen gaiak**

Artikuluetan (11) aurkitutako gaiak hiru izan dira: *planteamendu pedagogikoak*, *planteamendu pedagogikoak eta proposamen praktikoak* eta *ikerketak.* Planteamendu pedagogikoen inguruan izan dira gehien topatutako artikuluak (6). Ondoren irakaskuntza estiloen inguruko ikerketak ditugu (4) eta bukatzeko artikulu bakar batekin planteamendu pedagogikoak eta proposamen praktikoak nahasten duten artikulua dugu.




**15. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen inguruko GrAL eta Tesien gaiak**

Gradu Amaierako Lanetan (3) eta Tesian (1) zehazten diren gaiak bi dira: *planteamendu pedagogikoak eta proposamen didaktikoak* eta *planteamendu pedagogikoak eta ikerketak*. Izan ere, lehenengoa izan da errepikatuena, 3 publikazioekin, bigarrena, berriz, publikazio bakarra du.

## EREDU PEDAGOGIKOAK




16. Grafikoa: Eredu pedagogikoen inguruko liburuen gaiak

Liburuetan (9) tratatu diren gaiak anitzak izan arren, bi multzo nagusi zehaztea lortu da: lehenengoa *proposamen didaktikoak* dira eta hauek praktikan oinarrituta daude, hala nola jolasen bildumak, gai honekin lotuta aurkitu den liburua "*Aprendizaje cooperativo en las clases de Educación Física*"-rena izan da, Antonio Manuel Solana Sánchez-ena. Bigarrena proposamen didaktikoaz gain *planteamendu pedagogikoaz* ere hitz egiten dute, hau da, hasieran teoria aurkezten da eta liburuaren amaieran teoria hori praktikara eramateko proposamenak ematen dira, gai honen inguruan hainbat liburu aurkitu dira, zehazki 8.




**17. Grafikoa: Eredu pedagogikoen inguruko artikuluen gaiak**

Liburuak baino gehiago artikuluak (40) aurkitu ditugu, ondorioz aurkitu diren gaiak desberdinagoak izan dira, hala ere bost gai ezberdinetan banatzea lortu da, bi gai berriak erantsiz, *ikerketak* eta *hezkuntza proiektuak*. Artikuluen artean proposamen didaktikoak izan dira gehien aurkitu dena, hau da, eredu pedagogikoen praktikari buruz informazio asko dago, horren inguruko 15 artikulu topatu dira. Bere atzetik ikerketak datozte, eredu pedagogikoak zer nolako eragina duen gorputz hezkuntzako saioetan eta inklusioa sustatzeko baliagarria den edo ez bezalako 11 ikerketak bildu dira. Jarraiki planteamendu pedagogikoak ditugu, hau da, testuinguru eta oinarri teorikoa eskaintzen digun informazioa biltzen duten artikuluak dira eta horren inguruan 9 artikulu bildu ditugu. Ondoren planteamendu teorikoa eta proposamen pedagogikoak uztartzen dituen 4 artikulu jaso ditugu. Bukatzeko hezkuntza proiektu bakarra topatu dugu, “Hormigas Cooperativas” izenekoa.




**18. Grafikoa: Eredu pedagogikoen inguruko GrAL eta Tesien gaiak**

Gradu Amaierako Lanetan (11) eta Tesietan (4) topatutako gaiak liburuetan eta artikuluetan topatutako antzekoak dira: *bilketa bibliografikoak, proposamen didaktikoak, planteamendu pedagogikoak eta proposamenak eta planteamendu pedagogikoak eta ikerketak*. Planteamendu pedagogikoak eta proposamen praktikoak lantzen dituzten GrAL eta Tesiak dira nagusienak (8). Ondoren planteamendu pedagogikoak eta ikerketak uztartzen duten lanekin jarraitzen dugu (4). Bere atzetik proposamen didaktikoaz hitz egiten diguten publikazioak ditugu (2). Bukatzeko bilketa bibliografiko bakarra topatu dugu.

## 6.3 HITZ GAKOEN ARABERA

## IRAKASKUNTZA ESTILOAK




**19. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen publikazioen hitz gakoak**

Publikazioak gutxiagoak izan direnez, hitz gakoak ere gutxiagoak izan dira. Kasu honetan terminologia nahiko zehaztuta dago, irakaskuntza estiloa, gorputz hezkuntzaren metodologia eta irakaskuntza teknika kontzeptuak dira aurkitu ditugunak. Horietatik nagusiena, argi den moduan, irakaskuntza estiloena da, 7 liburu zein artikuluetan agertu dena. Ondoren irakaskuntza estiloak eta irakaskuntza teknikak konbinatzen duten beste 5 liburu eta artikulu topatu ditugu. Bukatzeko irakaskuntza estiloei erreferentzia egiteko gorputz hezkuntzaren metodologia erabiltzen duen artikulu bat aurkitu dugu.

**EREDU PEDAGOGIKOAK**




**20. Grafikoa: Eredu pedagogikoen publikazioen hitz gakoak**

Hitz gakoak identifikatzeko liburuen eta artikuluen hasierako laburpenetan ohartu gara. Hitz gakoak harreman zuzena dute aurretik zehaztutako gaiekin. Ikaskuntza kooperatiboa izan da gehien agertu den terminoa, 20 artikuluetan eta liburuetan zehazki. Bigarren maila batean eredu pedagogikoak eta jolas kooperatiboak ditugu, bakoitzak 3 alditan agertu da liburu eta artikulu ezberdinetan. Gainontzekoak nahiko parekatuak egon dira. Eredu pedagogiko ezberdinen artean ikaskuntza kooperatiboan zentratu nahi izan dugu lanaren ikuspegia, horregatik hitz gakoen artean kooperazioa da agertutako hitz errepikatuena.

(gai nagusiak ikaskuntza kooperatiboa, jolas kooperatiboak eta eredu pedagogikoak, bilaketa ondo egin da)

## 6.4 KONPARAKETAK




21. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen eta eredu pedagogikoen publikazio motak

Grafikan ikusi dezakegun moduan irakaskuntza estiloak eredu pedagogikoekin alderatuta, aurkitu dugun publikazio kantitatea askoz gutxiagoa da. Bestetik, bien kasuan, artikuluak izan dira aurkitu den publikazio motarik errepikatuena, izan ere, desoreka izugarria dago, 40 artikulu alde batetik eta 11 bestetik Blogen kasuan bien arteko oreka egon da; 10 blog alde batetik eta 8 bestetik. Bestalde, GrALen kasuan eredu pedagogikoen inguruan 11 aurkitu ditugu eta irakaskuntza estiloen inguruan, berriz, 3. Bukatzeko, biak eredu pedagogikoen publikazio motarik eskasena tesiena izan da, eredu pedagogikoak 4 tesi bildu ditu eta irakaskuntza estiloak, berriz, bat.




**22. Grafikoa: Irakaskuntza estiloen eta eredu pedagogikoen publikazio datak**

